

II. ERANSKINA

EZAUGARRIAK

Kirolean hasteko jardueren heziketa eta kirol programak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan eskaini eta garatuko dira.

1. ALDERDI OROKORRAK

Parte-hartzaileak: 8 urtetik 17 urtera bitarteko ikasleentzat, hezkuntza-premia bereziak dituztenak barne, beti ikastetxeko irakasleek lagunduta egonen baitira.

Tokia: Nafarroako Foru Komunitatean.

Programaren iraupena, guztira: 2024-2025 ikasturtean eskainiko da (2024ko irailaren 1etik 2025eko ekainaren 30era arte), Eguberrietako eta Aste Santuko oporrak alde batera utzita.

Eskainitako jardueren iraupena: Programaren barrenean eskainitako jarduera guztiek egun bateko iraupena izanen dute: goizez, arratsaldez, edo goizez eta arratsaldez.

2. EDUKIAK.

Heziketa eta kirol programek gorputz eta/edo kirol jarduera bat edo batzuk izanen dituzte barnean, dagokion modalitatean hastera bideratuak eta ikasleen adinera egokituak. Preziso diren segurtasun neurriak hartuko dira, eta jarduera bakoitzak behar dituen baliabide materialak, giza baliabideak eta azpiegiturak izanen ditu.

3. SEGURTASUNA INSTALAZIOETAN ETA JARDUERETAN.

3.1. Instalazio guztiek behar diren segurtasun neurriak izan beharko dituzte jarduerak behar bezala garatuko direla bermatzeko, eta, eskainitako jarduerari eta erabilitako instalazioei dagokienez, 2025. urteari dagozkion ikuskapenak eginak izan beharko dituzte.

3.2. Heziketa eta kirol programako jardueretako bakoitzean aritzeko eskatzen diren segurtasun neurriak hartu behar dira jarduera guztietan.

3.3. Uretako jardueren kasuan, ezinbestekoa eta nahitaezkoa izanen da parte-hartzaileek igerian jakitea. Antolatzaileek ez diete baimenik emanen uretako jarduerarik egiteko igerian ez dakitenei. Gainera, beharrezko eta berriazko neurriak hartuko dituzte hori kontrolatzeko.

3.4. Uretan egiten diren jarduera guztietan nahitaezkoa izanen da salbamendu-txalekoa eramatea.

3.5. Nahitaezkoa izanen da osasun-arretako eta ebakuazioko plan bat izatea.

4. GIZA BALIABIDEAK ETA PRESTAKUNTZAKOAK.

4.1. Honako langile hauek izanen dira heziketa eta kirol programa egiteaz arduratzen direnak:

- Koordinatzaile bat, programa antolatzeaz, kontrolatzeaz eta gauzatzeaz arduratuko dena.
- Kirol jardueretako monitoreak.

4.2. Kirol jarduerak egiteaz arduratzen diren monitore guztiek berariazko prestakuntza izan behar dute kirol-monitorearen lanbidean edo bela-modalitatean kirol-monitore jarduteko, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen arabera, bai eta lehen sorospenetako titulazioa, ekainaren 15eko 63/2022 Foru Dekretuaren arabera (foru dekretu horren bidez, Nafarroan kirol-lanbideetan jarduteko lehen sorospenetako hasierako prestakuntzaren akreditazioa arautu zen).

4.3. Parte-hartzaileen talde bakoitzeko monitore ratioa ezartzeko, egin beharreko jarduera, arriskua eta egiteko tokia hartuko dira kontuan.

4.4. Programa garatu bitartean eginkizun batean edo bestean aritzen diren programako langileek ez dute inolako lan-kontratu harremanik izanen Nafarroako Gobernuarekin.

5. PARTE-HARTZAILEAK.

5.1. Programa hau Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoei, pribatuei eta itunduei dago bideratua. 8 urtetik 17 urtera bitarteko eskola-haurrak izanen dira parte-hartzaileak, hezkuntza premia bereziak dituztenak barne. Ezin da murrizketarik egin kirol eta gorputz jarduerak egiteko gaitasunengatik.

5.2. Deialdiaren xede nagusia kontuan hartuta, ezin izanen da ikaslerik baztertu hautapen prozesuen ondorioz. Desgaitasunak dituzten ikasleak hezkuntzako sistema normalizatuan sartzeko ahalegina islatu behar da programan parte hartzeko aukera emanez. Hori betetzen ez bada, dirulaguntza galduko da.

5.3. Ikasle guztiek ikastetxeko irakasleak izanen dituzte lagun beti, eta taldeak antolatzen laguntzeaz arduratuko dira. Joan-etorrietan, egin beharreko jardueretan eta ezartzen diren atsedenaldietan egonen dira eskolako hurrekin. Halaber, edozein arrazoiengatik programatu gabeko joan-etorriren bat egin behar duten ikasleei lagunduko diete.

5.4. Ikastetxeko irakasle laguntzaileen ratioa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei dagokienez, taldearen premien eta ezaugarrien arabera ezarriko da.

6. BALIABIDE MATERIALAK ETA AZPIEGITURAK.

Entitate onuradunek parte-hartzaile bakoitzaren esku jarri beharko dute heziketa eta kirol programaren barnean egin beharreko jarduera bakoitzean aritzeko behar den material espezifiko guztia.

Material guztia behar bezala erabiltzeko moduan egonen da, eta onuradunen ardura izanen da hura konpondu edo ordeztea.

7. BAIMENAK.

Deialdi honetako entitate onuradunek bermatu behar dute legezko betebeharrak konplitzen direla heziketa eta kirol programako jarduera guztiak egiteko baimenei dagokienez.

8. LAGUNTZA TEKNIKOA.

Entitate onuradunak beste entitate batzuekin lankidetzan aritzen ahalko dira zerbitzuetako edozein egiteko: garraioa, materialaren alokairua eta gorputz eta/edo kirol jarduerak egitea, l. eranskineko 17. oinarriarekin bat.

9. OSASUN LAGUNTZA.

Entitate onuradunek parte-hartzaile guztientzako istripu aseguru bat kontratatu beharko dute. Horretaz gain, erantzukizun zibileko asegurua izan behar dute.